

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Ekoizpenerako, baliabide fisikoei erreparatuz beharrezkoa dugun makinaria izango dugu. Bestalde, baliabide intelektualei begiratzuz, pertsonal espezializatua izango dugu.

SUHARA: Gerentea izango da, izan ere, pertsona talde bat zuzentzeko gaitasun trebea du.

NAROA: Marketin eta publizitateaz arduratuko da, sormen handia eta ideia erakargarriak baititu.

TOSHIBA: Finantzataz arduratuko da, kalkuluetan trebetasun handia duelako.

MAIALEN: Ekoizpenaren eta giza-baliabideen arduraduna izango da, taldeak antolatzen eta sor daitezken gatazkak kudeatzeko gaitasuna eta langileen kontratazioarako ikuspegi ona du eta.

Gure produktuak arrakasta duela suposatuz, etorkizun bati begira gure baliabideetan hobekuntzak ematearen posibilitatea kontuan hartuko dugu. Adibidez, produktuen prezioak eskaneatzeko makina manuala izatetik, detektore bat izatera pasa ahalko litzake. Bestalde, gure enpresaren webgunea eramango duen langile bat kontratatuko dugu, hau da, programazioa externalizatuko dugu. Baita garbitzaileak kontratatu ere.

Finantza-baliabideei dagokienez, mailegu bat eskatuko genioke bankuari hasiera batean. Bankuarekin interesak negoziatu beharko ditugu eta dirua zenbat urteetara itzuli. Honez gain, bankuak mailegua eman diezagun gure produktuak gizartearekiko duen eginkizuna azaldu beharko diogu, bertan eragiten duen onura alegia.